

AITA DONOSTIA, KANTA-BILTZAILE
KANTA BATEN PERIPEZIA

MANUEL LEKUONA

Aiek egunak! gizaldi onen asierako egunak! Sabino Arana'ren «errenazimentu» berpiztearen egunak. Abertzaletasun-egunak; bañan baita zenbait euskal-kulturaren piztuera ere...

Kultura-gaietan orduko gauza asko aipa ditezke; bañan bat batez ere, nere ustez: Euskal-kantaen biltze-kanpaiñak: Azkue baten eta A. Donostia baten kanta-kanpaiñak... Gure orduko Aldundiak kanta-bildumak oparo saritu bait zituzten...

Olako bi bilduma izan ziran, orduan sarituak, ots aundia atera zutenak biak: Azkue'ren «Milla ta bat»eko Bilduma, eta A. Donostia'rena: Azkue'renaren erdi besterik etzana A. Donostia'rena, bañan orduko kritikoak Azkue'renari baño izen eta fama aundiagoa eman ziotena: Azkue'renak baño aukeramen eta selekzio fiñagokoa zala, alegia: Pirene-mendiko aize fiñaren *firun* gozoa obeto adierazten zutenak, alegia: euskal-kutus jatorragokoa...

A. Donostia'ren Bilduma artan asko aipatu ziran orduan «Nik ba ditut mortuetan» bat, eta «Arranoak bortietan gore» bat, eta «Plañu niz» bat, beste askoren artean.

Ori bai: kantaen letragatik kritika lastimagarria egin zitzaizela; kritika aien indarrez letra txukunagoko -garbiagoko- entsaioak egin ere bait ziran. Eta bide orri jarraituaz gogoan degu guk, «Nik ba ditut» kantari «Oñazez» izena ipiñi zitzaizola, letra negarti bat ipiñi zitzaiolako. «Oñazez».

«Nik ba ditut» orren peripezia bat konta nai det gaur, Aita Donostia'ren omanaldi-eiburu onetan.

Peripezia bat, orain gizaldi-erdi Suiza'n gertatua. Gure adiskide zan D. Luis Elizalde'ri Suiza'n gertatua; eta berak guri kontatua.

Asieran esan degun abertzaletasun-urte aietan izan zan gauza. Abertzaletasuna Euskalerrian pilpillean zebillen garai artan.

Urte aietan *Minorías Étnicas* esaten zaien oietakoak, aldiari bein egiten zituzten beren Congreso-Asanblada; eta batzar-lekua askotan Suiza'ko Erriren bat izan oi zuten.

Congreso aietan Europa guztiko Minorías Etnicas ziralakoak batzar-
tzen ziran: Irlanda, Txeko-Eslovakia, Alsazia-Lorena... Eta aien artean
Euskadi'ko Delegazioa.

Congresoko batzar aietan -jakiña- Minorías Etnicas aiek European
zituzten problemak arakatzen ziran -gero Liburu ederretan argitaltzen zi-
ran Estudio sakonak, alegia-.

Bañan D. Luis Elizalde'k esaten zigunez, estudio sakonezko itzaldiaz
gañera, Hoteleko Bazkalondoetan-da eratzen zituzten entretenigarri soare-
taren batzuek, Minoría bakoitzekoak beren kantak kantatuaz-ta...

Kanta ederrak, seguru asko: Erri bakoitzean kantatzen ziran ederre-
nak.

Suiza'ko Batzar aietan, Euskadi'tik joanak, besteen artean, tolosarrak
ziran, olako gauzetan poz batean arkitzen ziranak: Pepe Izagirre bat, Jon
Andoni Irazusta bat, Ixaka Lopez Mendizabal bat eta... Eta aien artean,
gauza guri kontatzen zigun D. Luis de Elizalde, bergararra, Gasteiz'ko Ins-
titutoan Matematiketako Katedratiko zana. Poz batean danak.

Soareta alaiak benetan bazkalondo aietakoak! Batzuek kanta, eta bes-
teak kanta.

Gure mutillen txanda etorri zanean, Elizalde'k keñu Pepe Izagirre'ri;
eta biok pianora. Pepe Izagirre kanturako gusto aundia zuan tenor polita
zan. Elizalde ere pianoan poliki oitua.

Elizalde'k pianoan «Nik ba ditub»en lenengo konpasak. Eta Pepe Izagi-
re'k bere abots zoliarekin:

Nik ba ditut mortuetan
ardiak artzainareki;
itxasoan amar ontzi
beren marinelereki...

Jendearen arrimena, noski, olako melodi fiña entzutean!

Jendearen erreakzioa:

- Kanta errikoia dala diozute?

- Bai, jauna, bai! Errikoi jatorra. Aita Donostia'k Nafarroa'ko erri
koskor batean bildua. Beste «bertsio» bat ere ba du Charles Bordes'en
«Maiteak bilhoa holli». Bañan au, dan bezelaxe Aita Donostia'k Baztan'go
erri batean notarik-nota bildua.

- Arrigarria! Olako melodia fina!

Gure kongresistak ezin siniztu zuten.

Eta ezin-sinistu onek gure Elizalde'ri poza ematen zion.

Aita Donostia'ren bertsioa izan zan gure Elizalde'ri alako poza eman
zion bertsioa.